

## OSO GARRANTZITSUA

ERASMUS+ programa batean parte hartu nahi baldin baduzu, honakoak izan behar dituzu kontuan eskaria EGIN AURRETIK:

1.- ERASMUS Nazioarteko mugikortasun programarako eskaria EGIN AURRETIK, eskuratu INFORMAZIOA. Ahalik eta informazio gehien eta zehatzena izateak berebiziko garrantzia du prozesua zuzen burutzeko eta gaizki ulertuak eta ezusteko desatseginak ekiditeko. Horretarako, bi informazio iturri nagusi dituzu:

- Zure master programako Batzorde Akademikoa
- Masterrari dagokion UPV/EHUko ikastegian mugikortasuna koordinatzen duen pertsona.
- **Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleentzako mugikortasun programei buruzko [araudia](#).**
- Nazioarteko Harremanen Bulegoaren webgunea:  
<https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak>

2.- ONDO irakurri ERASMUS+ programari buruzko informazio osoa. Erreparatu bereziki plaza bat lortzeko bete behar dituzun baldintzei (ikus deialdia).

Kontuan izan Euskara, Kultura eta Internalizazio Errektoreordetzak ezarritako betekizun orokorrez gain, UPV/EHUko izangai GUZTIEI mugikortasun-programetan parte hartzeko aplikatuko zaizkienak, master programa bakoitzak bere baldintzak izan ditzakeela, eta horiek arestian adierazitako baldintza orokorrak baino murriztaileagoak izango direla (inoiz ez malguagoak).

3.- Bekaren bateragarritasuna: Erasmus beka bateragarri da beste batzuekin. Hala ere, gerta daiteke beste laguntza batzuk ez izatea bateragarriak Erasmus bekarekin.

Beste erakunde baten beka bat baldin baduzu, zeure erantzukizuna da Erasmus bekarekin bateragarria dela ziurtatzea; horretarako, beka eman dizun erakundearekin jarri beharko zara harremanetan.

- 4.- Eskaria egin aurretik, ZIURTATU eskatu nahi duzun unibertsitatean egiten ari zaren programaren antzekoa ematen dutela. Kontsulta ezazu zer egutegi akademiko eta zein iraupen duten eskainitako plazak.
- 5.- ONDO IRAKURRI zein hizkuntza eta zein maila eskatzen duten beste unibertsitatean. Kasu askotan ezinbesteko baldintza da aukeratua izateko. Unibertsitate askotara joateko ezinbestekoa da han ikasketak emateko erabiltzen den hizkuntzaren gaitasun nahikoa, ona edo oso ona izatea. Galdetu masterrari dagokion UPV/EHUko ikastegian mugikortasuna koordinatzen duen pertsonari.
- Nazioarteko mugikortasun egonaldia, oro har, ikasturteko gutxien dela bi hilabeterako eta gehienez lauhilekorako izango da, nazioarteko programan edo hitzarmenean bestelakorik adierazi ezean.
- 6.- Nazioarteko Harremanetako Bulegoak eskabidean adierazitako posta erabiliko du nazioarteko mugikortasun programekin zerikusia duen edozer komunikatzeko.